

noaua

**Mozorrotzeko garaia
iritsi da**

**Usurbil Kirol Elkarteak,
Euskal Ligan**

**Ostiral honetan, Korrika
Batzordearen bilera**



Usoa Zumeta, serigrafia-egilea

“Artisau lana da gurea”

inauteriak 2015

otsailak 14, Usurbil

Gaia: Ipuinak

12.00: Erraldaien kalejira dultzaineroekin 16.00: Gaztelekuan Karaoke Festa
 18.00: Burrunbazale txarangarekin kalejira • 21.30: Aferria Gaztetxean
 (txartelak salgai 14 eurotan Noaua'n, Irratin eta Bordatxon)

noaua Leguntzako Urtzilatze Gastelesa

Lehenengo 6 erosi-entzako, garaje bikoitza banakako prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik



12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpiⁿ

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E: contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albiste iruditzen

Hotza uxatzen, Santa Ageda bezperan

Hotz handia zen kalera abestera irteteko, baina hotzak ez zituen uxatu, ez gaztetxo ezta helduak ere. Usadio zaharrei eutsiz, Santa Ageda bezperan, makilak eskutan herri erdigunetik eta Kalezar ingurutik barrena ibili ziren Udarregi Ikastolako ikasle eta irakasleak. Koplak abesten. Iluntzean, beste hainbeste egin zuten zubietarrek ere. Kaxkape egoitzatik hasita, makila hotsen erritmora abesten osatu zuten ibilbidea.



Udarregi ikastolako ikasleak eta irakasleak koplak abesten aritu ziren pasa den asteazkenean.

Laburrean

1956koen kinto afarian izena emateko epea zabalik

Otsaileko azken larunbatean elkartuko dira 1956an jaiotakoak. Antxeta jatetxean batuko dira, otsailaren 28arekin.

Izen emateko epea datorren astean amaituko da: otsailaren 21era arte dago tokia hartzeko aukera.

Apuntatzeko telefono zenbaki honetara deitu behar da: 648 755 316 (Guillermo).

Diru-laguntza deialdiak, otsailaren 26ra arte zabalik

Otsailaren 26ra arte zabalik Usurbilgo Udalarren diru-laguntzak eskatzeko epea, udal erregistroan. Bost dira Udalak eskaintzen dituen diru-laguntzak; nekazaritza-abeltzaintza, ingurumena, kultura, kirola eta gizarte alorretakoak. Otsailaren 3ko GAOn daude deialdion oinarriak. Argibide gehiago: kultura.usurbil.eus edo usurbil.eus web orrietan.

Errigoraren kanpaina berria

Urte berriko kanpaina berria abiatzear du, Nafarroa hegoaldeko euskalgintza lagundu eta tokiko produktuen salmenta sustatzen duen Errigora ekimenak. Erriberako oliba olio bidoiak saltzeko egitasmoa martxan du jada. Eskaerak egiteko epea otsailaren 20an zabalduko dute. Maiatzerako berri, kanpaina berri bat iragarri dute; kontserba loteena. Informazio gehiago: errigora.eus

noaua

Kultur Elkartea

Bordaberi, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // [elkartea@noau.com](mailto:elkartea@noa<u>u</u>.com) // [www.noau.com](http://www.noa<u>u</u>.com)

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

[publizitatea@noau.com](mailto:publizitatea@noa<u>u</u>.com)

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

[erredakzioa@noau.com](mailto:erredakzioa@noa<u>u</u>.com):

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Arna-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udalak



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Iñaki Gainza

Itzali telebista!

Azken urtetan ez dut telebistarik izan etxean, eta egia esaten badizuet, ez dut faltan bota. Gaur egun, Interneten nahi adina informazio dago.

Komunikabide baliagarria da, baina, gaizki bideratuta dagoela iruditzen zait. Irudiak ematen duen aukera oso interesgarria da (irratia eta prentsa idatziak ez dute aukera aniztasun hori ematen), eta ondo erabiliz gero, kriston tresna da. Zoritxarrez, gaur egungo telebista kateen aukerak baliagarriak izatek oso urrun daude. Azken hilabetetan telebista gehiago ikusteko aukera izan dut, eta tamalgarria iruditu zait eskaintzen diren aukeren kalitatea.

Edozein kate jarrita ere, reality show deritzanak besterik ez daude ikusgai, zein baino zein, morbo eta lotsagarriagoak. Balore

sexista, homofobo eta xenofoboak bultzatzen dituzte, besteak beste. Gizartean bultzatzea beharrezkoa diren parekidetasun, askatasun eta enpatia baloreak ez dira inondik inora agertzen eta pertsonetik errespetua urratu egiten da behin eta berriz.

Gizarte berri bat sortu nahi badugu, XXI. mende honekin bat etorriko dena, telebista bidelaguna izan beharko genuke. Baina, zoritxarrez, ez da hala. Parekidetasun eta errespetuan oinarritutako baloreak izango dituen gizarte sortu nahi badugu, denok gure lekua izango duguna, telebistako programazio honekin ez goaz bide honetik.

Garrantzitsua iruditzen zait komunikabideetako saioetan azaltzen dena, etxean eta eskoletan ikasi eta irakasten digutenaz gain, komunikabideek ere baloreak ezartzen baitituzte. Egunerokotasunean ikusten ditugun saio, iragarki eta marrazki

bizidunetan ez baitugu denbora soilik pasatzen, baloreak barneratzen dizkigute. Halako gizarte bat nahi al dugu? Ezer ikasi ez, bizitza osoan lanik egin ez eta bizitzan inongo helbururik ez duen gazteria nahi al dugu? Parranda eta ligatzea beste helbururik ez dituzten neska eta mutilak? Bere bizitza askatasunean biziko dena, besteak errespetatutako dituen eta gizarteari zerbait eskainiko dion gaztea ikusten dut nik etorkizunean, komunikabideetan baina, ez dira halakoak agertzen eta arriskutsua iruditzen zait hori.

Badirudi saioetan aditzera ematen dena zera dela: bular handiak, jantzi estuak eta mutil/neska bat lortzen duzun bitartean, dena ondo joango zaizu bizitzan. Baina, erotu al gara? Eta non geratzen dira bizitzako benetako helburuak? Gorputza zaintzea, baina osasunagatik, eta ez mutil

edo neska bat lortzeko; janzkera zaintzea gure burua hobeto ikusteko eta ez beste inorren gusturako; zerbait ikasi edo zerbaitetan lanean aritzea horrek hobeto sentiarazten gaituelako, gizartearen garapenerako lanean ari garelako; parrandan ateratzea lagunekin ondo pasatzeko eta ez soilik ligan lortzeko. Hori dena non ikusten duzue islatua? Telebistan behintzat ez.

Saio arinak emititzea ulertzen dut, ez gara egun osoa doku-mentalak eta albistegiak ikusten arituko; beharrezkoa da batzuetan arazoak alde batera utzi eta buruari deskantsua ematea. Baina, horrek ez du esan nahi gure baloreak alde batera utziko dituen saio bat ikustera behartuta egon behar garenik. Saio arina izan daiteke emakumeak, beste arrazetako pertsonak, etab. zapaldu gabe. Itzal dezagun telebista eta piztu dezagun adimena!

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | **Iñaki Gainza** | Luis Aranalde | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Idoia Torregerai | Joxe Piñas

Michelineko lan taldeak Zentroarteko komitea uztea erabaki du

LAB sindikatutik berri eman dutenez, enpresako lan batzordeak otsailaren 2an, Zentroarteko komitean jarraitu edo ez erabakitzeko galdeketa deitu zuen. Langileen gehiengoak, %64a, zentroarteko komitea uztearen alde agertu da. "Esan beharra dago Komitea osatzen duten talde

sindikala guztiek erreferendumen emaitza bere gain hartzeko konpromisoa hartu zutela", LAB sindikatutik berri eman dutenez. Sindikatu beretik diotenez, aspalditik egin izan duten eskaria babestu du langilegoak. Langileen batzordearen subiranotasuna babestearen alde agertu da.

Galdeketa emaitzak ezagutu-ta, bilerak iragarri dituzte egunotararako. "Datozen egunetan gai hau landuko da enpresa komitean, eta espero dugu gainontzeko taldeak eta enpresak berak plantillaren gehiengoak erabakitakoa errespetatzea", LAB sindikatutik adierazi dutenez.

Galdeketa

Galdera: Lantegia Zentroarteko komitetik irtetea nahi duzu?

Erantzuna:

322 langileek baietz (%64).

170 langileek ezetz (%34).

Parte hartzea: %90ekoa. 554 langileetatik 501ek hartu zuten parte.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

ANTXETA
taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

ARTZABAL
Baserría - Jatetxea

943 36 91 39
artzabaljatetxea.com

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Mozorrotzeko garaia iritsi da

Mozorroen atzean ezkutatu eta beste "gu" izanda, festa giroan murgiltzeko asteburua Usurbilen. Lehenik ikasleak, ostiral honetan. Koreografia landu bezain ikusgarriak eskaintzen dizkigute urtero, Udarregi Ikastolako HH, LH eta DBH-ko ikasleek, inauterietako emanaldian. Aurtengoa, ostiral honetan, otsailaren 13an ospatuko da. Ohi bezala, Oiardo Kiroldegian. Baina aurreko urteetan baino lehenago oraingoan; goizeko 11:00etan hasiko da saioa. Hori bai, ezin ahaztu, segurtasun arrazoiengatik jende kopuru mugatuak sartu ahal izango duela ekitaldira.

Ipuin ugari, larunbatean

Biharamunen, larunbatean ospatuko dugu, otsailaren 14an, Usurbilgo Inauteri Festa. Ohi bezala, mozorrotu eta kalea denok! Ipuinak ditugu, aurtengo jantziatarako proposatzen dizuegun gaia. Zuen ekarpena da gainera. Eguberri aurretik, tabernetan gaia hautatzeko jarri genituen zerrendetatik hautatua. Entzun dugu, hainbat etxeetan, azken asteotan prestaketa lanetan aritu zaretela. Larunbat honetan ikusiko dugu egindako lanaren emaitza. Gerturatu eta atera zuen datorren NOAUA!rako argazkia.



"Ipuinak", hori da aurtengo Inauterietarako proposatu den gaia. Ia zer nolako jokoa ematen duen.

Kale giroaz gozatzeko aukera ederra eskainiko digute inauteriek. Kalejira bana izango dugu eguerdian eta iluntzean. Iluntzekoa, Usurbilgo Gaztetxean amaituko da. Alkartasuna kooperatibaren egoitza ohian ospatuko da aurten ere, iaz bezala, Inauteri Festako afaria. Bertara mozorrotuta joatea ezinbestekoa izango da. Otodurako txartelak eskuratzeko epea, asteazkenean itxi genuen.

Tonbola erotikoa

Bada azken orduan iragarri den ekitaldirik ere: tonbola erotikoa, Usurbilgo Eragile Feministak antolatua. Poteo orduan burutuko dute eta ibiltaria izango da. Euro baten truke, opari eta jostailu ezberdin asko egongo direla iragarri digute. "Inauterietan utzi lotsa etxean, animatu eta atera kalera!", Eragile Feministakoen gonbita duzue horixe.

Ostiralean Ikastolan, larunbatean herri osoan

Otsailak 13, ostirala

■ 11:00 Udarregi Ikastolako ikasleen inauterietako ikuskizuna Oiardo Kiroldegian.

Otsailak 14, larunbata:

Ipuinen Inauteri Festa

- 12:00 Erraldioen kalejira dultzaineroekin.
- 16:00 Karaoke festa Gaztelekuan.
- 18:00 Burrunbazale txarangarekin kalejira.
- 21:30 Afaria Usurbilgo Gaztetxean. Txartelak salgai otsailaren 11ra arte 14 eurotan, NOAUA!ko egoitzan, Irratin eta Bordatxon. Menua:
 - Patatak errioxar erara.
 - Oilaskoa eutxourrei saltsan.
 - Profiterolak.



Erraldioen kalejira larunbatean egingo da, eguerdiko 12:00etan.

EH Bildu eta EAJ-PNV bat eginik, 04/08 sumarioko epaiketaren aurka

Epaitua izango den herri-tar bati elkartasuna adierazteko agerraldi bat eta berean batu ditu Usurbilgo EH-Bildu eta EAJ-PNV. Otsailaren 6an, Sutegin izan zen. 04/08 sumarioari lotuta, Madrilen epaitu asmo dituzten 35 euskal herritarrei, modu berezian Marisa Alejandro herritarrari, euren babes helarazteko bildu ziren bi eragile politikoa, kultur etxeko auditorioan deitu zuten ekitaldian.

Gogoan izan, hamarna urteko espetxe zigorra eskatzen du fiskaltzak, Marisa eta beste 34 lagunentzat. Zergatik eta, agerraldian aipatu bi eragile politikoei ondo adierazi bezala, “euren eskubide politiko eta zibilak baliatuz, lan politiko eta instituzionala burutzeagatik”. Horregatik, ziotenez, “larria iruditzen zaigu oraindik, epaiketa hori egiteko asmoa bere horretan egotea”. Bertan behera uztea eskatu zuten, politikoa izan eta lekuz zein garaiz kanpo dagoen epaiketa hau.

Garai berriekin konprometituta

Espainiako Gobernuari ardura-gabekeria baztertu eta “egungo legedia oinarri hartuta eta salbuespenekoa atzean utzita”, bizikidetzaren aldeko aurrerapausoak ematea galdegin zioten.

Usurbilgo EHBilduk eta EAJ-PNV-k bizi dugun egoera berri honen aldeko konpromisoa erakutsi zuten. Etorkizun hobego bat lortzeko, aurreko ostiralean bi eragile politikoei eginiko agerraldi bateratuarekin, haien ekarpena egin nahi izan zuten, “elkarrekin urrats txiki handi hau eginez, guztion bultzadarekin amesten dugun eta euskal gizarteak behar eta merezi duen bakea lor dezagun”.



Usurbilgo EHBilduk eta EAJ-PNV-k bizi dugun egoera berri honen aldeko konpromisoa erakutsi zuten. “Elkarrekin urrats txiki handi hau eginez, guztion bultzadarekin amesten dugun eta euskal gizarteak behar eta merezi duen bakea lor dezagun”.

EAJ-PNV / EH BILDU

“Larria iruditzen zaigu oraindik, epaiketa hori egiteko asmoa bere horretan egotea”. Bertan behera uztea eskatu zuten

Bat eginda

Usurbilgo EAJ-PNV eta EHBilduren agerraldia hasi aurretik, adierazpen batzuk egin zituen, Egunkaria auziagatik epaitua izan zen beste herritar batek; Joan Mari Torrealdai. Ekitaldiaren balioa nabarmendu nahi izan zuen. “Ekitaldi honetan eta herriaren aurrean gure herriko bi sentsibiltate politiko nagusienak, EAJ-PNV eta EHBildu, herrikide baten alde elkarrekin agertzen dira. Bat eginda. Bat eginda salatu dute, eskubide urraketa eta bat eginda azalduko diote sostengua Marisari”, zioen Torrealdai.

Halere, agerraldi bateratua Marisari elkartasuna adierazteko haratago doan ekitaldia zela zioen. Bi eragile politikoei eskertu nahi izan zien, egingako ahaleginagatik. “Bejondeizuela horregatik. Marisak bereziki eskertuko du egin duzuen ahalegina, gaurko ekimen hau. Baina hark bakarrik ez, herritarrok ere bai. Urrats eredarria baita, sinbolikoki eta bestela ere bai”, adierazi zuten.

“Etorkizunaren alde”

Otsailaren 6ko batasuna, gehiagotan errepikatzea gustatuko litzaiokeela aitortu zuen Torrealdai. “Gustatuko litzaidake elkarlan hau zabalagoa gerta dadin eta maizagoa bihurtu dadin”, zioen.

Garrantzitsutzat jo zuen, eragile politiko eta sozialak elkar hartuta agertzea, gaur egungo “eskenatoki berri baten alde, bizikidetzaren alde, etorkizunaren alde”. Eragileok elkarlanean ikusteak, herritarren artean sekulako ilusioa pizten duela nabarmendu zuen Joan Mari Torrealdai.

Hirugarrenez atzeratu dute epaiketa

Sutegiko agerraldia baino ordu batzuk lehenago eman zen eza-gutzera, hirugarrenez, bertan behera geratu dela Espainiako Auzitegi Nazionalan abiatu behar zen 04/08 sumarioari loturiko epaiketa. Berez, urtarrilaren 12an hasi behar zuen Marisa Alejandro herritarraren eta beste 34 lagunen aurkako epaiketa. Baina egun berean, euskal abokatuen aurka izandako polizia operazioaren ondorioz (tartean, defentsa lanak egin behar zituzten hiru abokatu atxilotu zituzten) etenda geratu zen, urtarrilaren 29ra arte.

Bezperan, urtarrilaren 28an bigarrenaz atzeratu zuten. Otsailaren 11n iragartzekoa zen Espainiako Auzitegi Nazionala, epaiketaren hasiera data. Baina aurreko ostiralean, epaiketa hirugarrenez atzeratu zuten, abokatueta bategi, Haizea Ziluegak 6 auziperatu defendatzeari uko egin ostean. Orain 15 eguneko epea dute 6 auziperatuok, beste abokatu bat izendatzeko. Zehazteke segitzen du epaiketa noiz abiatuko den.

Ane Bengoetxea Artetxe: “Jendea gidabaimena euskaraz ateratzera animatzen dut”

Udan gaingitu zuen zati teorikoa, praktikoa duela hiru hilabete. “Jada denbora pasata, ez nintzen zozketaz oroitzen. Saria tokatu zitzaidala berri emateko telefonoz deitu zidatenean, ez nuen espero. Sorpresa ederra!”. 400 euroko ezustea Ane Bengoetxea Artetxe gaztearentzat. Gidabaimena euskaraz ateratzeak saria baitu Buruntzaldean. Bailarako udalek, autoeskolekin batera, 400 euroko 11 sari banatu berri dituzte. Aurten, Ane izan da Usurbilgo zorteduna.

400 euroko sariak teorikoaren gastuak estaltzen lagunduko dizu?

Ane Bengoetxea Artetxe: Teorikoa 400 euro inguru kostatzen da. Teorikoko klaseak eta azterketako gastuak, estaltzen ditu. Aparte doa zati praktikoa. 400 euroak oso ondo datoz. Magisteritza ikasten nabil. Gurasoek ordaindu didate gidabaimena. 400 euro jasota, 400 euro gutxiago ordaindu behar.

Zergatik erabaki zenuen gidabaimena euskaraz ateratzea?

Neure ama hizkuntza euskara denez, eta Usurbilgo autoeskolara joan nintzenez, inongo momentutan ez nuen planteatu gazteleraz egitea. Zuzenean joan nintzen autoeskolakoengana hitz egitera, gidabaimena euskaraz ateratzeko asmotan. Azaldu zidaten nola funtzionatzen zuen.

Zer zerbitzu eskaintzen du autoeskolak?

Autoeskolara joatean, ordenagailuetako testak daude. Galderak euskaraz dituzu. Autoeskolak utzitako liburua ere euskarazkoa izaten da. Zailtasunak argitzeko, autoeskolako irakaslea dago. Egia da, gaztelerako eskaintza aurreratuagoa dagoela. Nahi duenak, etxean nork bere kabuz testak egiteko aukera ematen duen aplikazio bat du eskuragarri.

Autoeskolako materialean erabiltzen den euskara ulergarria izan zaizu?

Bizitza errealean zirkulazioko hitz tekniko asko, gaztelaniaz erabiltzen ditugu. Horregatik, arrotzak egiten dira euskarazko kontzeptuak. Baina zergatik ez egin euskaraz? Hartara kontzeptu horiek euskaraz barneratuko ditugu. Ez da zaila. Gaztelaniaz erabiltzen ditugun betiko bost kontzeptu euskaraz ikasi eta kito. Gidabaimena euskaraz ateratzeak ez du inolako zailtasunik.

Zati praktikoa guztiz euskalduntzeke dago.



Gidabaimena euskaraz atera eta gero 400 euroko saria jaso du Anek, Buruntzaldeko udalen zozketan.

ANE BENGOETXEA

“Autoeskolara joatean, ordenagailuetako testak daude. Galderak euskaraz dituzu. Autoeskolak utzitako liburua ere euskarazkoa izaten da”

Nola bizi izan duzu teorikotik praktikorako aldaketa?

Zati praktikokoaren lehen azterketan aztertzaile erdalduna egokitu zitzaidan. Ez nuen gaingitu eta bigarrean, euskalduna. Aztertzaileak niri euskaraz hitz egiteak lasaitasuna transmititu zidan eta askoz gusturago ibili nintzen. Zati teorikoan kontzeptu batzuk euskaraz entzuterako ohitu eta gero, zati praktikokoan gazteleraz entzutea arrotza suertatzen da.

Zeure kasuan beraz, gidabaimena ia ia oso erik euskaraz atera ahal izan duzu?

Bai. Zorte hori izan dut, hasieratik bukaerara dena euskaraz egin ahal izateko aukera. Egoera aldatzen doa pixkanaka.

Lagunek zer diote?

Haien artean entzun izan dut, gaztelaniaz errazagoa izango delakoan, gehiago izan direla gidabaimena gaztelaniaz ateratzen dutenak. Ez dakit zergatik den, agian ohituagoak direlako zirkulazioko kontzeptuak gazteleraz entzuterako. Zentzu horretan kontra egin eta gidabaimena euskaraz ateratzera animatu izan ditut.

Autoeskolan irakasleen laguntza izan zuen

Nola animatu dituzu lagunak?

Ane Bengoetxea Artetxe: Batzuk hasi dira gazteleraz prestatzen, etxean dutelako euren kabuz testak egiteko aplikazioa. Esaten nien autoeskolara joaten baziren, eskolakoek ere laguntzen dutela eta euskarazko kontzeptuak ez direla zailak. Hitz tekniko batzuk ikastea besterik ez dela. Gainera euskaraz bizi gara gure egunerokotasunean eta ikasketak ere euskaraz ateratzen ditugunez, neure ustez gidabaimena euskaraz ateratzeak ez du inolako zailtasunik. Animatzen dut jendea gidabaimena euskaraz ateratzera, gure hizkuntza baita eta ez duelako zertan gaztelerakoa baino zailagoa izan behar.

Gidabaimena eskuratzeko prozesua guztiz euskalduntzeko, zer erantzukizun dugu erakunde eta herritarrok?

Bi faktoreek eragiten dutela uste dut. Azkenean pertsona berak jabetu behar du eta aukeratu gidabaimena euskaraz ateratzea. Baina egia da baita, erakundeek herritarrek gidabaimena euskaraz ateratzera bultzatzen badituzte, adibidez, aplikazioak euskaraz jarri eta gaztelaniaren pare egotea lortzen badute, horrek ere euskalduntzea sustatuko du.

200 lagun, #Kilometroak15-en aldeko bertso-afarian



Bertso afarira hurbildu ziren lagunei xaxatzen aritu ziren Jon Maia eta Uxue Alberdi. Inazio Usarralde aritu zen gai jartzaile lanetan.

Jendetsua dudarik gabe, aurreko ostiral iluntzean Saizar sagardotegian ospaturiko bertso-afaria. #Kilometroak15 ekimenaren aldeko hitzorduak 200 lagun bildu zituen. Sagardotegiko jan edana, Jon Maia eta Uxue

Alberdi bertsolariak girotu zuten, baita Bergarako trikitilariak ere. Herritar bat izan zuten gai jartzaile; Inazio Usarralde. Ekitaldiak emandakoaren inguruko kronika eta irudiak, kilometroak.eus atarian bildu dituzte.

Martxoaren 1eko Lilatoian Gattunk taldea osatzeko deia



Otsailaren 17a baino lehen eman behar da izena kilometroak2015@ikastola.net helbidean.

Donostian ospatuko da 26. Lilatoia. Gattunk taldea osatzeko proposamena luzatu dute #Kilometroak15 ekimenetik. Animatzen direnak, eman dezatela izena, otsailaren 17a baino lehen, kilometroak2015@ikastola.net helbidean. Bestela

deitu, 688 639 910 telefono zenbakira. "Norberaren datuak bidaltzeaz gain, bidali kamisetaren neurria ere, mesedez, kamiseta berezi bat aterako dugu-eta. Lilatoian ere, parekidetasunaren aldeko aldarria zabal dezagun!", luzatu dute gonbita.

Laguntza behar dute, "Gure Zozketa" ekimenerako

#Kilometroak15 ekimenaren aldeko Gure Zozketa ekimeneko errifak herriz herri saltzeko laguntza behar da. Gogoan izan, "urtean zehar hainbat gastu ordaindu behar direla. Gurasoen nahiz langileen artean banatutako txartelen salmentaz gain, familiei irteeretan parte hartzea eskatzen da, gehiago saldu behar baita helburu ekonomikoak bete nahi badira. Ez da ahaztu behar, helburu nagusietakoa eraikin berriaren zorra ordaintzeko dirua ateratzea dela... Ikastolatik".

Gure Zozketa ekimenak 60.000 euroko sari potoloa jarri du jokoan. Errifak saltzen lagundu nahi duenak, Udarregi Ikastolako idazkaritzara gerturatu eta bertan eskatu errifak. Edo deitu 943 36 12 16 telefono zenbakira. "3 orduko irteerak izaten dira eta bi pertonekin nahikoa izan daiteke. Zenbat eta talde handiagoa, giroa ere hobea izango da", antolatzaileen esanetan.

Errifa saltzen dabiltzanek aipatu digutenez, jende berria eta herrietako giroa eza-gutzeko aukera ederra ematen du, errifan salmentak. Bide batez, eskerrak eman nahi dituzte #Kilometroak15-etik "guraso nahiz langileei orain artekoagatik, baina zozketa taldean irteera batekin behintzat laguntzera animatu nahi genituzke, Tolosako Inauterietan, sagardo denboraldian, besteak beste....".

Tonbolarako materiala uzteko deia

#Kilometroak15, Udarregi Ikastolako eraikin berria diruz laguntzeko baliatu nahi da. Horretan, diru iturriak lortzeko lanean dabil batzordeetako bat. Beste ekimenen artean, tonbola antolatu asmo dute Sagardo Egunean, Santixabeletan eta Kilometroak egunez. Tonbolarako materiala biltzen ari dira. Zuek ere parte har dezakezue. Tonbolarako ekarpenik egin nahi duenak idatzi dezala usurbil@udarregi.com helbidera edo deitu, 943 36 12 16 telefono zenbakira.

Munduan Gattunk

Arropa, zapia edo txapekin munduko txoko ezberdinetan atera ditzakezuen argazkiak jaso nahi dituzte #Kilometroak15 ekimeneko antolatzaileek. Irudirik baldin baduzu beraz, bidali kmk15_komunikazioa@udarregi.com helbidera. Edo igo bestela Twitter-era, #GATTUNK traola erabilia.

Tapia eta Leturia Taldea, Sutegin

#KILOMETROAK15-EN ALDE ARITUKO DIRA OTSAILAREN 28AN



#Kilometroak15-en alde jotzeko itzuliko dira. Emanaldia eskusiboa izango da beraz, eta taldearekin joko dute.

#Kilometroak15 nola izango den ez dakigu. Baina bidea behintzat, ekitaldi ederrez osatzen hasia da. Eta ibilian, #Gattunk

lema han eta hemen zabaltzen ari den egun hauetan, sorpresa atsegin bat iragarri dute: Tapia eta Leturia Taldearen kontzertu-

tu. Aparteko ekitaldi honen lekuko izan nahi baduzu, aldeztu aurretik eskuratu sarrera. Eta berandu baino lehen.

Sarrerak salgai

Otsailaren 28an kontzertu eskusiboa eskainiko dute Sutegin. Arratsaldeko 19.00etan hasiko da saioa. Jakinmina piztu duenez, sarrerak aldeztu aurretik erostea komeni. Kontuan izan gainera, Sutegiren aforoa mugatua dela. Beraz, azkar ibili.

■ Sarrera: 15 euro.

Ikasle eta langabetuek: 10 euro.

■ Sarrerak erosteko: Ikastolako idazkaritzan, Gattunk dendan eta Txirristra tabernan.

Sarrera zozketa

NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozketatuko ditugu. Zer egin behar da zozketan parte-hartzeko? Email bat idatzi erre-dakzioa@noaua.com helbidera eta otsailaren 27an ostirala argituko dugu zein bazkidek jasoko dituen bi sarrera. Web orrian, noaua.eus helbidean jakinaraziko dugu. Gogoan izan, eskaintza hau soilik bazkideentzat dela.



SAGASTIEN ZAINKETA IKASTAROA



Datak: otsailak 28, martxoak 7, martxoak 14, maiatzak 23, ekainak 13, irailak 12

Ordutegia: 9:00-13:00

Irakaslea: Aitor Etxeandia (Sagarlan)

Helburua: Sagarrondoaren neguko eta udako inausketa ezagutzea, ongarrantzea, izurrite eta gaixotasunen jarraipena egitea. Sagarraren heldutasun analisia eta bilketaren aurrikuspenera

Hizkuntza: euskaraz

Metodologia: Teoriko-praktikoa. Ezagutza maila guztiei zuzendua.

Prezioa: 90€ (zait bat Kilometroak laguntzeko)

Non: Potxoenea Kultur Etxean

Izen-Ematea:

Alkartasuna Kooperatiba: 943361114
Atallu industrialdea 26, Usurbil
www.alkartasunausurbil.com
alkartasuna@usurbil.com



Usoa Zumeta: “Jendea obra e

Jende asko ari da #Kilometroak15 egunaren alde lanean. Bere sormena eta bere denbora eskaini dutenen artean da Usoa Zumeta. Kilometroak-en alde egin dituen serigrafiak aitzakia hartuta, bere estudio berria ezagutzeko aukera izan dugu.

Kilometroak-en aldeko mural bat egin zenuten Jose Luis Zumetak eta zuk. Mural hori serigrafia bidez eskuratu daiteke. Nola sortu zen ideia?

Murala egin zen lehenbizi. Ekarpen bat ere egin nahi genion #Kilometroak15 egunari, eta murala egin behar zenez, serigrafiarena proposatu genuen. Hainbat bilera egin genituen eta erabaki zen 150 aleko edizio bat egitea. Ez dakit nola doan salmenta, baina promozio lan handia egiten ari dira.

Garai aldrebes hau, zure ogibidean ere igarriko zen ezta?

Artea beti egon da krisian. Beti izan da gorabehera handikoa. Urte oso onak egon dira, boom ekonomikoaren garaian, baina hura ere ez zen oso normala eta ikusten zen lehertu behar zuela nonbaitetik. Baina bestetik, onuragarria ere izan da. Jendeak artearekiko beldurra galdu du.

Jendea ausartzen da orain obra erostera, eta garai batean elitistagoa zen. Esfortzu



Txikierrdin duen estudio berrian hartu gaitu Usoa Zumetak.

USOA ZUMETA

“Denborarekin, konfidantza hartzen joan naiz. Bereziki, beste artista batzuei gauzak proposatzeko orduan”

txiki bat eginez, serigrafia bat edozeinek erosi dezake.

Serigrafiarena betidanik argi izan duzun kontu bat izan al da?

Arte Ederretan ikusentzunezkora eta pinturara jo nuen. Gero pinturarekin bakarrik segitzea erabaki nuen. Bigarren mailan nengoela, serigrafia ikastaro bat egin nuen Artelekun. Hori izan da nire for-

mazio bakarra serigrafia arloan. Baina aitak hasieratik esan zidan, “hori ikasten baduzu, nik lana emango dizut”. Berak ezagutzen zuen grafika kontua eta beti gustatu izan zaio.

Eta orain zure ogibidea da.

Aitarekin lan asko egin nuen hasieratik. Denborarekin, konfidantza hartzen joan naiz. Bereziki, beste artista batzuei gauzak proposatzeko orduan. Nahikoa ondo moldatzen naiz teknikarekin. Eta bentaja dut Arte Ederrak ikasi izanarekin, horrek oinarri handi bat eman didalako, estetikoki batez ere.

Oso fisikoa da zure lana, ezta?

Bai, hala da. Serigrafia industrian makina automatikoak erabiltzen dira baina nik manualki egiten dut lan.

Inprenta asko itxi dira. Serigrafia mundua ere azkenetan al da?

Egun inpresio digitala nagusitasuna hartzen doa arlo askotan. Gurea mantenduko da, serigrafia artisau teknika bezala balioan jartzeko gai bagara eta bide luzea dago egiteko. Baina zaila da, materiala bera ere galtzen goazelako. Gero eta zailagoa da tinta onak lortzea. Eskuz egindako paperekin ere gertatzen ari zaigu. Fotolitoak lantzeko materiala ere desagertzen ari da...

“Azkenaldian bisita asko egin nizkion Nestor Basterretxeari”

Erakusketak ere antolatu izan dituzu. Baduzu besteren bat buruan?

Normalean ez dut erakusketan pentsatzen. Obra asko editatzen dudanean, eta materiala batzen joaten naizenean, orduan hasten naiz erakusketan pentsatzen. Dena den, aurten, badut ideia konkretu bat buruan eta horri heldu nahi nioke.

Zerbait aurreraterik bai?

Azken urteotan harreman dezentte izan nuen Nestor Basterretxearekin. Bagenuen erakusketak egiteko asmoa, baina gauza askorekin zebilen, kezka handiekin... Azken urteotan fondo asko egin nizkion. Azken elkarrizketetan borobilerara bueltatzen hasia zela aipatzen zidan. Hori egiten hasi zela gaztetan eta borobilerara bueltatzen ari zela orain.

Eraman nizkion fondo borobil

batzuk, baina gero hil egin zen eta ez dut bere lanaren emaitzarik ikusi. Dena den, egitasmo horri tira eginez, pentsatu dut ideia hori proposatzea artista ezberdinei. Abiapuntua eman eta ea artista bakoitzak zer egiten duen ondoren. Berez, niri ez zait gustatzen artista horrela baldintzatzea, baina proposamen hau oso irekia dela iruditzen zait. Nik abiapuntua emango diet eta gero

erabakiko dute abiapuntua mantenduko duten, edo borratuko duten ondoren... Aurten egin nahiko nuke.

Aitarekin eta Koldobika Jauregirekin hitz egin dut eta nirekin lan egiten duten beste artista batzuei ere proposatu nahi diet. *In memoriam* moduko erakusketak izango da. Azkenaldian bisita asko egin nizkion Nestor Basterretxeari. Harremana genuen.

rostera ausartzen da orain”

Noiz sortu zen Txikiardiko estudio hau sortzeko premia?

Lurrak ibilbide luzea dauka. Aitak 70eko hamarkadan erosi zuen, eta lur-erazua eta zimentazio perimetrala egin zen orduan. Muralen garaia zen hura. Enkargu bat jaso zuen Arrasate-tik, eta lan hura burutzeko erosi zuen terrenoa. Zeramikako estudio bat ipini nahi zuen. Lur-erazua egin zuen, zuhaitzak landatu zituen... Baina Arrasateko enkargua bertan behera geratu zen. Aita dagoeneko obratan sartuta zegoen eta lan hura gabe geratu zenean, galera handia izan zen aitarentzat.

Diru horrekin kontatzen zuen estudioko obra egiteko. Eta horrek galera handiak ekarri zizkion. Lurra saldu behar izan zuen. Hernaniar batek erosi zuen, musika estudio bat eta anfiteatro natural bat egin nahi zuen bertan. Baimena lortu zuen baina proiektu hura ere bertan behera geratu zen.

Duela sei-zazpi urte, lurra eskuratzeko aukera izan genuen. Aitarekin hitz egin nuen eta azkenean erdibana erostea adostu genuen.

Zuen estudioez gain, bada erakusketak areto itxurako beste gune bat.

Proiektua definitzen joan zen heinean, hirugarren espazio bat sortzeko aukera suertatu zen. Goikaldeko belazean.

Normalean, arte munduan gabiltzanon tailerra kaos bat izaten da. Eta jendea erostera etortzen denean, inoiz ezin dugu dena garbi erakutsi. Espazio hori behar da. Eta hori egiteko espazioa bazen.

Aspaldi hasi zineten baina ez duzue inauguratu oraindik. Zer dela eta?

Xabier Mikel Errekondoren garaian hasi ginen. Guk argi genuen lanerako espazio bat behar genuela eta udalak argi zuen hobe zela herriko artistak herrian geratzea. Guretzat estudioa Txikiardin gauzatzea, due-



#Kilometroak15-en alde egin duten serigrafia 150 eurotan eskura daiteke. Ikastolako idazkaritzan eskatu daiteke, 943 36 12 16 telefono zenbakian edota Gattunk dendan.

ZUMETATARREN TXOKOA

Bi estudio daude, aita eta alabarena, bata besteari itsatsiak. Eta erakustoki izango den hirugarren gune bat ere bada

la ia 40 urte hasitako amets bat betetzea zen. Beraz, gure beharrei erantzuten zion proiektu bat diseinatu genuen, Udalak baimendu zuen eta halaxe eraiki zen.

Udal gobernuaren aldaketa eman zen ondoren, udal arkitektoa ere aldatu zen, eta hor hasi ziren arazoak, dakidanez beste herritar askorentzat bezala.

Eta zertan daude gauzak orain?

Beste proiektu bat eskatzen zaigu: behin estudioa eraikita zegoenean eta nahiz eta proiektu pribatu bat izan, interes publikoa duenez, udal gobernu berriarekin hitzarmen bat sinatu zen. Herritarrentzat urtean behin erakusketa bat eta 10 bisita gidatu antolatuko ziren. Ondorioz, Udalak jendea jasotzeko irisgarritasun araudia bete behar genuela eskatu zuen, eta guk aurreko udalak baimendutako proiektuan ez genuen aurreikusitako horrelakorik.

Gure aldetik hasieratik azaldu dugu moldaketa lanak egiteko borondatea: kotxez

iristen da goikaldera, eskubarranda duen ranpa bat dago eskailerak ekiditzeko, gurpildun aulki batekin bira emateko sarreraren aurrean pasabidea zabaldu da, sarreran irekitzen diren 80 zm-ko bi ate daude, komuneko bi ateak 90 zm-koak jarri dira, komuneko barrak jarri dira, konketa aldatu da behekaldea libratuz...

Araudiek beti dute interpretaziorako tarte handia, baina gure ustez araudiaren irizpide orokorrak betetzen dira eta erabilpena bermatuta dago edonorentzat. Azpimarratu nahi dugu Udalak bere garaian baimendutako proiektua gauzatu dela.

Horregatik ez dugu ulertzen irekiera baimena ez jasotzea. Bidea luzea izan da eta okerrera Udalarengandik sentitu dugun desconfiantza izan da, benetan amorragarria eta etsigarria da egoera hau.

“Ametsa ametsgaizto bihurtu da”

Epe laburrean, inauguraziorik egiteko asmorik ez orduan.

Gu lanean gaude eta hori izan da guretzat lehenetsua hasieratik. Proiektu honek Usurbilen zuen zentzua, baina izandako trabak ikusita... Ilusioa galdu dugu, ametsa ametsgaizto bihurtu da.

Orain arte, etxean egiten zuen lan Usoak

Gauek egunera bezala. Estudio honek ez du aurretik zenuenarekin zerikusirik, ezta?

Usoa Zumeta. Ez bakarrik espazioagatik. Deskonektatzeko aukera dut orain. Lehen etxean egiten nuen lan eta orain etxetik atera eta "lanera noa". Etxean lan egin behar baduzu, ez zaude geldirik inoiz. Ez duzu mugarik. Egun batzuetan, ogi bila bakarrik jaisten nintzen.

Ordu asko egiten dira lanean baina estudio berrira etorri nintzenetik, orain etxeaz ere gozatzen ari naiz.

Jose Luis Zumeta, Gaintatik Usurbilera

Eta aita, orain aldamenen duzu lanean.

Estudio hau bukatu genuenean, aita ondoezik egon zen. Gaintzako (Nafarroa) estudioan egiten zuen lan, baina geroztik hemen dago lanean.

Erosotasunean irabaziko zenuen.

Lehen serigrafia-froga bat egiten nuen eta Betelura joan behar nuen, aitari erakutsi, bueltatu berriro nire etxera... Maila horretan, nire lana pila bat erraztu egin da.


Zuen arteko komunikazio artistikoa ere, handiagoa izango da orain, ala ez?

Bera hemen egonik, sortzen da komunikazio bat, bai. Hemen erabiltzen ez den material asko aprobetxagarria da eta berak, batzuetan, hortik egiten du tira. Uste dut berak presentetago duela serigrafia orain, beti du ideien bat, zerbait egiteko kuriositatearen bat...

Usurbil K.E., Euskal Ligan

Kadete neskek, jubenil mutilak eta jubenil neskek herrialde mailan txapeldun ditugu. Kadete mutilak, txapeldun orde. Denboraldi on hau baloratu digute taldeetako entrenatzaileek, inkesta moduko honen bitartez.

- 1- Gipuzkoako lehen postuetara nola heldu zarete?
- 2- Pozik taldean?
- 3- Datozen erronka berriei aurre egiteko zer baliabide dituzue?
- 4- Zein da aurrera begira jorratu nahi duzuen bidea?




Kadete neskek: Jon Alzaga (irudian) eta Mikel Alzaga

■ 1- Egia esan, oso ibilbide ona izan dugu. Orain arteko partida guztiak irabazi ditugu, nahiko ondo jolastuta. Azaldutakoa gainera ondo ikasten dute. Banekien jokalaria onak zirela, baina harritu egin naute.

■ 2.- Oso pozik gara egindako lanarekin. Orain lasaitu behar gara. Galtzeko arriskua barneratu behar da. Egin dezatela orain arte egin dutena.

■ 3.- Hamarreko taldea gara. Fisikoki ondo daude. Bakoi-tzak duen onena ematen du. Ondo goaz. Gainera oso giro ona dago. Oso pozik gara. Eta taldean ere oso ondo hartu ninduten. Eskerrak talde kideei.

■ 4.-Euskal Liga da gure helburua. Euskal Liga zaila da, exijentzia maila askoz altuagoa da. Aurrerantzean ez ditugu partidak hain erraz irabaziko. Askoz partida gogorragoak izango dira. Orain da momentua erakusteko, zer egin ahal duten. Saiatuko gara orain arte bezala hobetzen, irabazten, eta gozatzeko, hori baita garrantzitsuenak. Gero jubenil eta seniorretan lehiakorrek izatea tokatuko zaie. Orain gozatu eta ondo pasa dezatela.



Kadete mutilak: Jon Aizpurua (irudian) eta Andoni Zubeldia

■ 1- Ondo aritu gara. Arazo bat dugu bai jubenil eta kadeteetan; oso gutxi gara. Futbolekoen laguntza jasotzen dugu. 4 kadete ibiltzen dira jubeniletan. Eta infantilak kadetei laguntzen aritzen dira. Taldeko hamarna kide gara. Lehenengo fasea bigarren amaitu genuen. Partida bat galduta, Elgoibarren aurka. Beste guztiak irabazi ditugu. Joan etorriko final bat izan genuen. Etxean irabazi genuen eta kanpoan galdu. Horregatik, bigarren sailkatu gara Gipuzkoan.

■ 2.- Urte oso ona egiten ari dira. Jubenil eta kadete mailetan hain maila ona izatea ez dugu inoiz bizi izan. Aurtengo denboraldian izan da. Ia noraino heltzen garen.

■ 3.- Jokalariak koadrila kideak dira. Lagun bezala harreman ona dute, eta horrek mesede egiten dio taldeari, eta gu ere beraiekin hobeto eramaten laguntzen du.

■ 4.- Arazoa da, taldean gutxi garela. Lesioen aldetik dena ondo badoa, talde indartsu bat dugu. Baina jokalariak lesioak izaten hasten badira, horrek mugatuko gaitu. Ia lesiorik gabe heltzen garen denboraldi amaierara. Hemen kalitate handia dago eta jokalariorik eskubaloian jarraitzen badute, Usurbilek harrobi ona izango du.




Jubenil neskek: Ane Herrero eta Nerea Agudo

■ 1- Balorazioa oso ona da, kontuan izanda jubenilen mailan 7 fitxa izan ditugula eta nahiko justu ibili garela. Ez dugu neurketarik galdu, partidetan ez dugu arazorik izan. Partida guztiak oso erraz irabazi dituzte. Askotan maila hobea erakutsi dute. Partida bakoitzerako eskatutakora ere oso ondo egokitu dira. Jarra baita, oso ona izan da. Beti entrenatzeko prest.

■ 2.- Giro lasaia dugu. Igoera espero genuen, ez da ezustekoa izan. Orain arte ez zeuden beraien mailan. Talde hau Euskal Ligakoa da. Honaino iritsi behar ginela oso argi zegoen. Emaitzek islatzen dute, tarte handiz irabazi izan dira neurketak.

■ 3.- Jarrera, nortasuna, laguntasun handia dute. Beti nahi dute zerbait gehiago, eskatu egiten dute. Jarrera horrekin jarraitzen badute, oso talde zaila izango gara aurkari-entzat. Ahultasun puntua, jokalaria kopurua; 7 dira.

■ 4.- Euskal Ligan errematatzea, azken postuetan ez geratzea. Partidaz partida gerra ematera joango gara. Ligan eta geure buruari eskatzen diogunaz ikastera. Helburua, jokalaria bezala haztea.



Jubenil mutilak: Ander Aisa (irudian) eta Iñigo Aisa

■ 1- Gogoratzen naiz abuztuan, kirol elkartetik deitu zidatela, anaita eta biontzako eskainiz talde hau. Oso gutxi ginen. Klubaren bulegoan hitz egin genuen lasai hartu behar genuela denboraldia. Helburua denok batera bukatzea izan behar zuela eta ez izatea desastre bat. Partidaz partida joan eta partidak irabazten hasi ginen. Azkenean Gipuzkoako txapeldun amaitu dugu. Ez genuen espero honaino iristea. Baina azkenean lortu dugu eta gustura gaude.

■ 2.- Jende gutxi gara eta horrek denok elkar hobeto ezagutzen laguntzen du. Gustura gabiltza. Oraingo, taldeko giroa ona da eta denboraldia hala bukatzea espero dugu.

■ 3.- Taldea bat eginda dago, denok batera lan egiten dute. Ez dago desberdintasunik beraien artean. Asko elkar laguntzen dira. Lan egiteko gaitasuna dute. Eta asko ahalegintzen dira.

■ 4.- Ez genuen pentsatzen honaino iristea. Kadeteetan ikusten zen talde ona zegoela. Erronka, maiatzeko faserako sailkatzea zen. Hona iristea ez genuen ezta pentsatu ere egiten. Maiatzeko sailkatu gara, Euskal Liga igoera jokatzekeo baita. Zorionak taldeari, lortu dutenagatik.

Ziortzak, 30 urte



Urteurrena behar bezala ospatzeko, apirilaren 18tik 26ra ekintza ugari antolatuko dituzte.

2015a ospakizun urtea izango da Ziortza Gazte Elkartekoentzat. Hiru hamarkada bete berri dituzte, ehunka gazteei aisialdi tarte bat eskaintzen. Sare sozialen bidez, urteurreneko mezu berezia zabaldu dute.

“1985. urtean, gaur bezalako egun batean, Usurbilen gazte koadrila bat bildu zen Ziortza Gazte Elkartearen sortzeko asmoz. Orduetik, 30 urte pasa dira eta hementxe jarraitzen dugu jende berriak, indar eta ideia berriekin. Hala ere, familiez osaturiko familia erraldoi hau ez zen posible izango zu(ek) gabe, zorionak eta eskerrik asko beraz!”.

Urteurrena bistaratu nahi izan digute. Apaiz etxeko balkoian 30. urteurreneko pankarta bat eseki dute. Sare sozialetan, urtemuga berezi honetarako sortu duten irudi berria ere erakusgai jarri nahi izan dute. Zorionak! Ziortzakoe kaleratu duten ohar honetan, apirilera iragarri dituzte ospakizunak:

“Kaixo familia:

2015 urtearekin batera Ziortza Gazte Elkartearen 30. urteurrena datorkigu. Hainbat urtetan, denon parte hartzeari esker iritsi gara gaurdaino, denon esfortzua eta laguntzaz bete ditugu 30 urte.

Ezin ditugu ahaztu kanpal-

diak berekin dituen lanak, irribarreak, momentu zail eta pozgarriak... Urteko saioetako elkarlana, bizipenak... Kabal-gatako ilusioa, inozentzia... Azken batean garena izaten lagundu eta laguntzen gaituztenak. Hauek guztiak aurrera eramateko, askok hartu dugu parte eta denok izan gara eta gara Ziortza.

Ezin ahaztu beraz, ospatzeko moduko festa honetara zuoi ere gonbita luzatzeaz. Ekintzez beteriko apirilaren 18tik 26ra gurekin parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Ospatu dezagun gure historia elkarrekin, gonbidatuta zaudete.

Ziortza Gazte Elkarteak”.

Gure Pakeako bazkideen arteko txapelketak

Urteko batzarra egin ostean, bazkideen arteko txapelketa betean dira egunotan, Gure Pakea Elkarteko kideak. Ostegun honetan, otsailaren 12rako antolatu duten Igel eta Toka jokoekin amaituko dituzte saio hauek. 16:00etatik aurrera Artzabal. Amaieran, sari banaketa eta askaria parte hartzaile guztiak.

Izen ematea zabalik, Euskararen Ginkanan

Topaguneak, Kutxa Ekoguneak eta Azkue Fundazioak elkarlanean antolatutako Euskararen Ginkana abiatzear da. IKTak eta ekologia izango da laugarren ediziooko gaia. Taldekako lehiaketa izango da. Talde bakoitza, 16 urtetik gorako 4-6 lagunez osatuko da eta elkarte edo eragile bat ordezkatu beharko dute. Izen ematea zabalik egongo da, otsailaren 18ra arte. Bi fase izango ditu txapelketak; otsailaren 19tik martxoaren 26ra luzatuko den Internet bidezko 6 probez osaturiko lehen fasea eta apirilaren 18an, Donostiako Ekogunean ospatuko den finala. Txapeldunek euskararen aldeko proiektu batera bideratu beharko duten, 3.000 euroko saria irabaziko dute. Informazio gehiago eta izen emateko: euskararenginkana.net



TAXI
24h
ORAIN 8 PLAZA!
677 37 34 66] Joxe
943 36 21 78] Etxabe

WIKEL AKADEMIA
Talde murriztuak eta pertsonalizatuak
- Lehen eta Bigarren hezkuntza
- Batxilergoa - Selektibitatea
- Lanbide heziketa
- Ikasketak teknikoak - Hizkuntzak
629944690
Galtzaragaña 1, behea USURBIL

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Oriako hegaztien lotegiak, erasotutak

Duela gutxi, bi lagun ikusi omen dituzte Ori ibai ondoan dauden ubarroi eta koartza itzainen lotegiei tiroka. Zenbait ubarroi ere akabatu omen dituzte. Errio ondoan duguna, koartzen lotegia bakarria omen da Gipuzkoan. Gertaerok salatu ditu Usurbilgo Udalak. “Dagozkion neurriak hartzeaz gain, gertaera hau publikoki salatu nahi du, eta herritar guztioi guztiona den tokiko natur ondarea arretaz zaintzea eskatzen du”, diote Udaletik.



Errio ondoan den koartzen lotegia bakarretarikoa da Gipuzkoan.

Jarraian, NOAUA!ra helarazi diguten oharra: “Ori ibaia bizitza iturri da, eta bertako arrain zein hegaztiak herritarren ondare eta altxor dira. Azken urteetan ibaiaren hobekuntza nabarmena izaten ari da, eta horren lekuko, gure herrian dauden ubarroi eta koartza itzainen lotegia dira, azken hau ia bakarra

Gipuzkoan. Herritar guztioi berdin ulertu ez, eta ehiza eta segurtasun arau ororen aurka, berriki bi pertsona ikusiak izan dira lotegiari tiroka eta zenbait ubarroi akabatu dituztela. Orduz gero, ubarroi kopurua nabarmen gutxitu da inguruan, eta koartza itzainen lotegia ere arriskuan egon daiteke. Nabar-

mentzekoa da espezie babestu bati egin ziotela tiro, baina baita ere jendea ibiltzen den tokietatik gertu ibili direla tiroka. Usurbilgo Udalak, dagozkion neurriak hartzeaz gain, gertaera hau publikoki salatu nahi du, eta herritar guztioi guztiona den tokiko natur ondarea arretaz zaintzea eskatzen du”.

Mus txapelketa, Gattunk tabernan



Oiardo kirolegiko tabernan jokatu zen Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa.

Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa saioa ospatu zen joan den larunbatean, Oiardo Kirold-

gian zabaldu ohi duten #Kilometroak15 ekimenaren aldeko Gattunk tabernan.

Otsailaren 21ean ospatuko da Gipuzkoako finala, 15:00etatik aurrera, Alegiako kirolegian.

Herria zuritu du bigarren denboraleak

Euriteen lehen denboralea pasa eta egun gutxira etorri zen bigarrena; hotza eta elurra. Denboralea gure artetik, inguru hau zuritu gabe pasako zelakoan, elurra mara-mara egiten ikusi genuen aspaldiko partez, otsailaren 6an. Elur hautsa etengabe aritu zen botatzen hiru bat orduz. Elur geruza fin batek estal zituen, hainbat etxeetako teilatu eta belardi. Atertu ostean, eguerditik aurrera urtzen joan zen elur geruza fin bat baino ez halere.



Otsailaren 6an, elurra mara-mara ikusi genuen, aspaldiko partez.

“Izarren argia”, hilaren 22an Sutegin

1938-1945 urte artean, Murtikuko Saturrarango kartzelan espetxeratuak egon ziren pertsonen zerrenda publikatu du Euskal Memoria Fundazioak. Otsailaren 22an, igandearekin “Izarren argia” proiektatuko du Erabile Feministak, Sutegiko auditorioan. Hain zuzen, Saturrarango kartzelan gertaturiko egoera latza azaltzen duen lana. Sarrera doan izango da.

Martxoaren 8ko Emakumeen Egunaren bueltarako egitaraua osatzen dabil Erabile Feminista.



EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182



Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil


LOGOPEDIA

Haurrak / Nerabeak / Helduak
TERAPIA MIOFUNZIONALA



Aurreko hitzordua: 635 701 374

- Arnasketa arazoak, disglusia, degluzioa
- Ahotsaren tratamenduak: disfonia funtzionala simple eta konplexua, disfemiak...
- Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...



Txirrindularien denboraldi hasiera



Xuban Errazkin eta Xabier Bengoetxea txirrindulariak, denboraldia hasteko prest.

Asteburu honetan abiatuko dute txirrindularitzako denboraldi berria, Xuban Errazkinetik eta Xabier Bengoetxeak. Euskadiko Selektzioarekin Kanbon

(Lapurdi) lehiatuko dira, "Challenge Essor Basque" proban, otsailaren 14tik 17ra. Biak Benidorren egonak dira egunotan, denboraldi hasierarako gogor entrenatzen.

Hasi dute irteeren denboraldia



Usurbil-Zarautz osatu zuten igandean. Hurrengo irteera: martxoak 8, Gorriti-Tolosa.

Otsailaren 8an, Usurbil-Zarautz bidea osatu zuten mendizale taldea duzue antolatzailerik ateratako irudian. Txango honekin, Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak abiatu

du 2015eko irteeren denboraldia. Hotza baina giro eguzkitsua izan zuten urteko lehen irteeran. Datorrena, aldaketarik ez bada, martxoaren 8an; Gorriti-Tolosa arteko bidea osatuko dute.

Pilota partidak

Otsailak 13, ostirala. Aginagan, 20:00h

Euskal Herriko txapelketa
Kadeteak: Pagazpe-Atxondo
(Exposito-Aranguren)

Nagusiak banaka: Pagazpe -Oberena (Iruña)
(Ander Quina)

Pala goma Udaberri txapelketa:
Pagazpe -Lagunak (Elgoibar)
(Errasti-Urdanpilleta)

Futbola Haranen

Otsailak 14, larunbata

11:00 Infantil mutilak: Usurbil-Ekintza
16:30 Ohorezko Maila:
Usurbil F.T.-Aretxabaleta K.E. UDA

Estitxu Berasategi, Madrilera berriz

Espainiako Eskubaloi Federazioak jubenil nesken kontzentrazio saioa antolatu du Madrilen, otsailaren 16tik 19ra. Kirol elkarte ezberdinetako jokalariek gonbidatu dituzte kontzentrazio saiora. Tartean, Usurbil Kirol Elkarteko kide, Estitxu Berasategi Eizagirre. Hilabeteko tartean, entrenamendu saio hauetara gonbidatzen duten bigarren aldia da.

Eskubaloi partidak

Otsailak 14, larunbata

09:30 Alebin mutilak: Udarregi 5A-Urnieta 5C
09:30 Alebin mutilak: Udarregi 5C-Urnieta 5A
10:30 Alebin mutilak: Udarregi 6B-Udarregi 6C
11:30 Infantil neskek: Udarregi B-Ereintza C
12:45 Infantil mutilak: Udarregi Usurbil-Hernani
16:00 Kadete neskek: Usurbil K.E. "C"-Aiala A
18:00 Senior mutilak 1. Nazionala:
Ucin Aluminio Usurbil-Tolosa C.F.
19:30 Kadete mutilak: Usurbil K.E.-Tekniker Eibar

Otsailak 15, igandea

11:30 Alebin neskek (7):
Usurbil K.E. "B"-Aloña Mendi

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Zuri arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • ZUBIETA
zuriarrainiturgintza@gmail.com

Pinturas Ion

KANPOALDEKO FATXADAK ETA
BARNEALDEAK (PISUAK, LOKALAK...)
ENPRESETAKO MANTENIMENDUAK

690 99 05 58
ionf81@hotmail.com

ESKAIOLA eta PLADUR
Joxean Elorza
699426042
USURBIL

terno eta orduka. Gauk etxean edo hospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketara eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketara industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketara lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrek emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titularekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketara edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsuak lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketarako egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altxariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko

prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Klase partikularrek ematen ditut, L.H-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeak eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zaintzeko nitzuke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsoneri erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrek emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsalde. Irakaskuntza gradua bukatzeak eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrek ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nitzuke goiz zein arratsalde. Irakaskuntzan diplomatua. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldetan, garbiketara. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketara eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta

formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketara lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrek ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna,

akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrek emateko.

Matematikako klaseak, maila gutzietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrek emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

BESTELAKOAK

Ezkontzako eratzun bat aurkitu dute udaltzainek. Conchi 1968/09/12 datarekin. Norbaiti falta bazaio udaltzaingoan da.

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Sofa-ohet bat salgai. 70 euro. 655 731 915.

Etxean genituen bi kanario falta zaizkigu. Aurkitzen badituzte, deitu: 943 36 55 74 (Regina).

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688888176. Pablo.

Trona bat JANE markakoa salgai. Berri berria. Urdina marrazkiekin. Tel. 666 373 665.

Mutil gazte bat prest dago, rotaborearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

Gidari arduratsua bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. 696264197.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

Ezkontzetan, festetan... Dj lanak egiteko prest. Telefonoa: 615 713 204 / djlarra@usurbil.com

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbategian: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Suteji Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaui Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak Otsailak 12 - otsailak 22

Osteguna 12 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

Ostirala 13 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 14 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 15 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astelehena 16 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

Asteartea 17 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 18 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Osteguna 19 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 20 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 21 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 22 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00etatik
13:30etara

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87
22:00 - 09:00

Agenda otsaila

12 osteguna

- **Gure Pakeako bazkideen txapelketak.** Igel eta toka jokoak. 18:00etan Artzabalen.
- **Afari begano mexikarra.** 20:30ean gazte-txean. Borondatearen truke.

13 ostirala

- **Inauteriak. Udarregi Ikastolako ikasleen ikuskizuna,** 11:00etan Kiroldegian.
- **Korrika Batzordearen bilera.** 18:00etan Etumeta AEK euskaltegia.

14 larunbata

- **Inauteri Festa.** Egun osoan. Informazio gehiago: 5. orrialdean.
- **Auzolana Zubietako Artzabaletan.** 8:15ean.

Ostiral honetan, Korrika Batzordearen bilera

Martxoaren 22an iritsiko da Korrika gure artera. Zubieta, Usurbil eta Aginaga aldetik igaroko da euskararen aldeko lasterketa, eta nondik norako guztiak lotzeko martxan hasi da Korrika Batzordea. Bilera berri bat deitu dute ostiral honetarako, arratsaldeko 18:00etan Etumeta AEK euskaltegian.

Mus txapelketa, Korrikaren alde

Korrikaren aldeko Gipuzkoako III. Mus Txapelketa antolatu dute eskualdeka, 4 erregetara. Lasarte-Usurbil eskualde mailako kanporaketak, otsailaren 20an jokatuko dira, 22:00etatik aurrera Lasarteko Avenida tabernan (Jalgi parean). Izen ematea aurrez, Lasarteko Muntteri eta Usurbilgo Etumeta AEK euskaltegietan (607609379). Edo txapelketa egunean bertan, 21:30etik aurrera. Prezioa; 12 euro bikoteko. Txapeldun eta txapeldun ordeen, "Riojanos" erretegiak eskainitako bazkari edo afaria izan-



Etumeta AEK euskaltegian elkartuko dira, arratsaldeko 18:00etan. Bilera irekia da.

go dute sari gisa. Eta Gipuzkoa mailako finaleko txartela noski.

Gipuzkoako finala, otsailaren 28an, 17:00etatik aurrera Astigarragako Zipotza elkarteetan. Bertan, eskualdeetako irabazleak lehiatuko dira. Sariak, finaleko bi bikoteentzako afaria eta txapel bana irabazleentzat.

Auzolan deialdia Zubietan

Islada Ezkutatuak taldeak 1936ko gerrako az-tarnak aurkitu dituen ingurunean, Txaldatxur-reko lubaki inguruak txukuntzeko auzolan deialdia larunbaterako, otsailaren 14an eta 21ean, 8:15ean, Artzabaletan.

Eraman beharrekoa: autoa, aitzurrak eta pak.

Datozenak

Otsailaren 22an, Skate Eguna

Skate Eguna antolatuko da Gaztetxeko bigarren pisuko skate parkean ospatuko da, "Ez dadila haria eten!" lemapean. Otsailaren 22an igandearekin. Datorren astean xehetasun gehiago emango dituzte.

Santixabeletako lehen bilera

Otsailaren 23an, arratsaldeko 18:00etan Po-txoenean. Herritar nahiz eragileek bertara joateko gonbita luzatzen zaie. Jai Batzordetik gogorarazten dutenez "iritsi zaigu berriz ere Santixabel jaiak antolatzen hasteko garaia".

Datorren kantu-jira, eguerdian eta gasteiztarrekin

Otsaileko kantu-jira, #Kilometroak15 ekime-naren alde Sutegin ospatuko den Tapia eta Leturia Taldearen emanaldiarekin egokitu da. Horregatik, Kantu Taldetik hitzordua eguerdian aurreratu dute. Honenbestez, otsaileko kantu zaleen hitzordua, hilaren 28an, 12:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuta.

Kantu Taldetik berri eman dutenez, Gasteizko kantu zaleak batuko zaizkie usurbildarrei. Eguerdian, Kaxkotik abesten ibili ostean, bazkaritarako bilduko dira 14:30ean, Saizar sagardotegian. Otordurako sarrerak otsailaren 23ra arte, 26 eurotan izango dituzue salgai, Lizardi liburudendan.

Otsailak 28, larunbata

12:00 Kantu-jira, Mikel Laboa plazatik abiatuta. 14:30 Bazkaria Saizar sagardotegian.

Afari begano mexikarra

Inauteri Festako otordua Gaztetxean ospatuko da larunbatean, iaz bezala. Aurretik, hilero bigarren ostegunetan egin ohi duten moduan, afari beganoa antolatu dute, otsailaren 12 honetarako, iluntzeko 20:30etan. Oraingoan, mexikar ukitua izango du. Afaria, beti bezala, borondatearen truke.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak · beira bikoitza
- segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ELORZA

O BRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

URDAIRA

Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik maiatzak 3ra
TXOTX-GARAIA
Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867



943 36 12 29

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com

ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



SAIZAR

Sagardotegia

Kale-zahar auzoa, 39
USURBIL
Sagardotegiko erreserba:

943 37 39 95

(Igande gaua eta astelehen eguerdia itxita)

www.sidrassaizar.com

SAGARDOTEGIA

aginaga

Hotela **

URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIK!
ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA



943 36 67 10

Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!



%100 bertako sagarra

Tel: 943 365 031

Santuenea

Usurbil



hari gara

ehbildu

Otsailaren 21ean herri batzarra (Potxoenean, 11:00etan)

**Zerrendak osatzeko jasotako izen proposamenak aurkeztea,
herri programa eta metodologiaren aurkezpena.**

Martxoaren 7an mintegia (Udarregi Ikastolan, 10:00etan)

**Arloka lan taldeak osatuz, programan sakontzea da helburua,
eta lehentasunak zehaztea.**

Martxoaren 21ean herri batzarra (Potxoenean, 11:00etan)

Herri programa eta zerrendak erabakitzea.

Mintegi edo herri batzarrera azaltzeko aukerarik ez dutenek ere izango dute ekarpenak egiteko aukera, honako email honen bidez: ehbildusurbil@gmail.com

